

Giro bikaina Errezil Sagar Lehiaketan

Inoiz baino herritar gehiago baserriko produktuen azokan

GABIRIA

Erbie elkarteak antolatzaileak, pozik 18 urteko ekimen hau erabat sendoturik ikusten dutelako

:: GABINO MURUA

GABIRIA. Aspaldiko partez, eguraldia ederki portatu zen atzoko errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azokan, eta ondorioz jendeak gozatzeko aukera bikaina izan zuen egunean zehar burutu ziren hainbat ekintzatan. Goizeko zortziak aldera ekin zioten antolatzailerik lehiaketarako nahiz azokarako behar ziren gauza guztiak prestatzeari eta hamarretarako dena prest zegoen: herriko plazaren inguruan Ezkio-Itsasoko Udalak utzitako karparen babesean lehiaketarako aurkeztu ziren 13 herritarren saskiak eta sagar-goxo lehiaketarako hamabi herritarrek aurkeztutakoak.

Baina lehiaketaz gain, azokak ere garrantzi handia du, eta inoiz baino herritar gehiagok hartu zuten parte euren baserrietako produktuen onenak saltzeko asmoz.

Bestalde, bertan izan genuen txertaketa lanetan aditua den Josu Osa txertaketa mota desberdinak azaltzen eta bertaratu zirenek ederki eskertu zioten zalantzak argitu izana. Azkenik, Korta jatetxeko Lontxo Ormazabal ere saiatu zen fin asko

bertaratzen zirenei sagar konpota eta errezil sagarrekin beste zer jaki prestatu litekeen erakusten.

Errezil sagarren ekitaldi honetan orain dela pare bat urte hartutako erabakiari eutsi nahi izan zioten Erbie elkarteak eta maila bereko hiru sari banatu ziren, euren artean bereizketarik egin gabe. Epai-lanetan Ramon Aseginolaza, Juan Bautista Sukia eta Xabier Mujika aritu ziren, eta nahiko lan izan zuten saria zeini eman erabakitzen, lehiaketara aurkeztutako sagarren kalitatea bikaina baitzen. Dena den, erabaki egin behar eta, epaimahaikoen ustez, sagarrak onenak, ordena alfabetikoz, hauek izan ziren: Zuazula-goiko Gotzone Arrondorenak, Noare-Etxeberri baserriko Juanita Lazkanorenak eta Izar-Aundi baserriko Maria Isabel Zumalakarrenak, baina Maria Isabel Zumalakaregik azken ekitaldian ere saria jaso zuenez eta ezin denez bi urtez jarraian saria jaso, Bekoetxeko Anttoni Murgiondok lortu zuen saria.

Errezil sagarren lehiaketaz gain, bazen beste lehiaketa bat, hain zuzen ere, sagar-goxoarena eta Korta jatetxeko Lontxo Ormazabal eta Legazpiko Josema Azpeitia kazetari gastronomikoa aritu ziren epaitzen. Hauen iritziz, aurtengoan Bekoetxe baserriko Anttoni Murgiondorena izan zen bereziena eta berari saria. Goierrri Beheko ezti lehiaketa ere egin zen eta irabazleak honako hauek izan ziren: Juan Elgarresta, Bittor Murgiondo eta Igor Altuna.



Sagar dotoreak. Hamahiru herritarrek aurkeztu zituzten saskiak. :: ARGAZKIAK: GABINO MURUA



Murgiondo, Lazkano eta Arrondo.



Bittor Oroz Anttoni Murgiondorekin.